

TOLOSALDEKO hitza **info**

Osteguna, 2013ko irailaren 19a. IX. urtea. 2.646. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Berazubi estadioan aurkeztu zituzten, atzo, Erronkako proben eta taldeen inguruko zehaztapenak. ITZEA URKIZU

Bizipozaren jaia behar bereziko haurren eta familien alde izango da, igandean

Irrien Lagunak Gizartegintza Elkarteak antolatu du, Lazkaon. Tourette sindromea dutenen Ibarako Afesta elkartearen ekimenaren barruan kokatzen da **07**

Joseba Otaegik apustua atzeratzeko eskatuko dio Alex Txikoni

Aizkolari zizurkildarra bizkarreko minarekin dabil eta pentatloi-desafioa onartu aurretik proba guztietan nola moldatzen den ikusi nahi du **03**

Gipuzkoako 21 taldek izango dute erronka Kilometroetan

Kilometroak eguneko Erronkan, gazteak, Ahora! bandera irabazten saiatuko dira

Erronka egitasmoa egunean bertan «gazteen parte hartzea aktibatuzeko» antolatu dute **02**

Hogeita bost txakolin dastatzeko aukera izango da Amasako plazan

Pilota, bertsoa eta txakolina izango dira protagonista larunbateko Txakolin Egunean **04**



Uxo Toki elkarteak kideek antolatu dute Txakolin Eguna. IT.

Tolosako txoko kuttunenak biltzen dituen erakusketa ikusgai dago

Udalak eta TolosaGasak antolatzen duten egutegirako argazki lehiaketako 40 finalistak hilaren 28ra bitarte egongo dira Aranburu jauregian **05**



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

TXAKOLIN EGUNA

Irailak 21, larunbata
16:00etan Amasan

saridunak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

- Mari Jose Amonarraiz (Tolosa)
- Joxe Ramon Zubeldia (Baliarrain)

"HIRUROGEITAHIRUKOAK" dokumentala

Irailak 19, osteguna • 20:00etan Tolosako Topic-en



sarrerak





Burbuila puzgarrien lasterketaren proba egin zuen Laskoraingo taldeak, agerraldian. ITZEA URKIZU

21 talde ariko dira Erronkan, Ahora! bandera konkistatzeko lehian

Kilometroak egunean «gazteen parte hartzea aktibatzen zerbait» antolatzeko nahiak sortu du egitasmoa

Itzea Urkizu

Urriaren 6ko Kilometroak egunean, Gipuzkoako ikastoletako 21 talde Ahora! bandera konkistatzeko lehian ariko dira, Erronka egitasmoaren harira. Finala irabazten duen taldeak ikasbidaia finantziatzeko 2.000 euroko ordainsaria jasoko du, eta Laskorain ikastola prestatzen ari den egun handirako bi aste inguru besterik falta ez direla, Berazubi estadioan Erronkako proben eta taldeen inguruko azken zehaztapenak eman dituzte arduradunek; burbuila erraldioen lasterketaren erakustaldia ere egin dute, gainera, Laskoraingo ikasleek.

Abraham Olano, Oihan Vega, Edurne Pasaban eta Asier Izagi-

re izan dira agerraldian, kapitainen ordezkari moduan. Eurekin batera, KMK 13ko koordinatzailea Unai Igartua eta Laskorain ikastolako Jone Urteaga zuzendaria ere izan dira, eta, azkenik, Erronkako sortzaile eta arduradun diren Aitor Elduaire eta Kike Amonarriek ere parte hartu dute.

Besteak beste, Erronka «apustu handia» izan dela nabarmendu du Jone Urteagak: «Gazteentzako zerbait desberdina egin nahi genuen, erakargarria, Kilometroak egunean beren parte hartzea aktibatzen». Horren harira, Erronkak festarako eredu alternatiboa ere izan nahi duela nabarmendu du Urteagak, eta aurrerantzean gainerako ikastolen jaietarako baliagarria izatea espero dute.

Bide honetan, Eñaut Telleriak ere gauza bera nabarmendu du, eta Ikastolen Elkartearen erronka «egitasmo hau beste Kilometroak jaietara nahiz beste lurraldeetako ikastolen jaietara erama-

tea» dela azaldu du, «hemengo ilusio berarekin».

Lehiarako bost gune

Erronka 14 eta 16 urte bitarteko gazteentzako lehiaketa da, eta Gipuzkoa osoko ikastoletako 21 taldek parte hartuko dute, zirkuituan osatu beharreko probetan.

Guztira bost proba prestatu dituzte, eta Tolosan izango dira lehiarako gune guztiak. Goizean Tolosako zezen plazan elkartuko dira talde guztiak, eta lehen proba bateratua amaitutakoan izango dute, egin beharreko hurrengo bi proben berri; honenbestez, atariko probaz gain beste bi proba egingo ditu talde bakoitzak, goizean. Erronkako parte hartzaileen nahiz hauek animatzera etorrako diren bilgunea zezen plaza izango da urriaren 6an, eta beraz, arratsaldeko probei ekin aurretik, Erronka bazkaria egingo dute zezen plazan bertan.

Arratsaldeko finala lau taldek bakarrik jokatu ahal izango dute, ordea. Goizeko talderik onenak zuzenean sailkatuko dira, baina horrek ez die aukerarik kenduko gainerakoei, izan ere, bazkalorduan bigarren aukera eskainiko dien proba bat egin ahal izango dute.

Modu honetara, probak zezen plazan, Berazubi estadioan, Iurreamendin, San Blasen eta Zumardian izango dira. 21 taldeetako kideek, berriz, burbuila erraldioetan sartu eta oztopodun lasterketa egin beharko dute, batetik; lasto fardoan gainean kapitain osatu beharreko probetan ere burutu beharko dute, era berean; Iurreamendin, aldiz, mosaiko bat buruz ikasi eta berregitea izango da proba; azkenik, Zumardian lokotx biltze bertikalean lehiatuko dira, autobideko zuta-beetan gora.

Norgehiagoka hauek guztiak egin ondoren, gazteek uretan

lehiatu behar izango dute, garai-pena emango dien Ahora! bandera eskuratzeko: baltsak eraiki beharko dituzte, eta Oria ibaian jaitziera egin beharko dute, Zerkausira iritsi arte.

Abilezia parekidetasunean

Antolatzaileek azaldu dutenez, abilezia, estrategia eta taldean lan egiten jakitea gakoak izango dira Erronkarako.

Horrela, DBHko 3 eta 4. mailerako 21 talde horietako bakoitzeko zortzi kide izango dira; erdiak neska izango dira, eta beste erdiak mutilak, eta azkenik, beste

Azken proba Oria ibaian izango da, eta 2.000 euroko saria jasoko dute irabazleek

bi lagun izendatu beharko dituzte, azken orduan aldaketarik egin beharko balitz.

Kapitainei dagokionez, berriz, talde bakoitzak bi izango ditu: norbere ikastolarekin zerkusi zuzena duen norbait izango da bata, eta bestea, berriz, norbere herrian ezaguna den norbait. Horrela, beraz, talde bakoitzak aukeratu ditu, jada, bere gidariak, eta antolatzaileek zenbait izen ezagutarazi dituzte: Edurne Pasaban, Asier Izagirre, Oihan Vega, Maider Gaztañaga, Malen Ruiz de Azua, Joseba Gurrutxaga, Edu Etxeberria, Etor Mendia nahiz Abraham Olano izango dira Erronkako kapitainetako zenbait.

Talderik lehiakorrenak Ahora! bandera eskuratuko du Nafar zubian gora igota, eta oihal horrek emango die 2.000 euroko ordainsaria. Ikasbidaia finantziatzeko erabili beharko dute dirua, eta DBH 3 eta 4. mailako ikasleek osaturiko taldeek parte hartuko dutenez, saria zatitu beharko dute.

● tolosa@hitza.info

↓ Taldeak

Aita Larramendi (Andoain)
Anoetako Herri Ikastola (Anoeta)
Uzturpe (Ibarra)
Jesusen Bihotza (Villabona Zizurkil)
Laskorain (Tolosa)
Aranzadi (Bergara)
Txantxiku (Oñati)
Arizmendi (Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza)
Jakintza (Ordizia)

San Benito (Lazkao)
Haztegi (Legazpi)
Urretxu-Zumarraga ikastola
Axular (Donostia)
Herri Ametsa (Donostia)
Haurtzaro (Oiartzun)
Zurriola (Donostia)
Salbatore (Zarautz)
Pasaia / Lezo ikastola
Ikasberri (Azpeitia) Udarregi (Usurbil)
Orioko Herri Ikastola (Orio)

↓ Iragarki laburrak

LANBILA

Etxeko lanak. 08:00etatik 14:00etara etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handiko emakume eskaldunak bere burua eskaintzen

du. Kotxea ere badauka. Interes duenak, ditu 943 69 68 82 edo 606 52 19 92ra.

ETXEBIZITZA

Alokagai. Alkizan, 120 metroko

baserri zati bat alokagai dugu. Erabat berrituta dago, eta bi solairuko etxea da. 60 metro karratuko terraza dauka eta baratarako 1.000 metro ere eskaintzen ditugu. Hilero 750 euro. Deitu 619 34 93 85ra.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Joseba Otaegi eta Alex Txikon, Azepeitan jokatu zuten apustuan. IBON ERRAZZU

→ Laburrak

Tolosa-Hernio-Tolosa lasterketa, bertan behera

TOLOSA › Aralarko Adiskideak elkarteko kideek Tolosa-Hernio-Tolosa mendi lasterketa antolatu zuten, larunbat hone-tarako. Parte hartzaile gutxi eman dutenez izena, antolatzailerek lasterketa bertan behera uztea erabaki dute.

Bizikleta bira egingo dute bihar, 17:00etan, Ibarra

IBARRA › Mugikortasun Astearen barruan bizikleta bira egingo dute Ibarra, bihar. Txirindulariak 17:00etan irtingo dira plazatik. Arane, Emeterio Arrese, eta Zaldune auzoa zeharkatu ondoren, berriro ere itzulia plazan amaituko da. Parte hartzaile guztiak kaskoa eraman beharko dute.

Euskal Herria Eguna antolatzen bilerak, gaur

IBARRA › Euskal Herria Eguna Lizarran ospatuko dute aurten, irailaren 28an. Lizarra, Algorta eta Ibarra herriak bertan egingo dute topo. Egun hori antolatzen, Ibarra, bilera egingo dute gaur 19:30ean, Gaztetxe gaineko lokaletan. Herri guztiak bertara gonbidatu dituzte.

Oargiren mendi irteeran izena emateko aukera

TOLOSA › Oargi Mendi Elkartek irteera antolatu du asteburu honetarako. Bihar Tolosatik abiatuko dira Conangles aterpetxera. Larunbatean Besiberri Norte igoko dute, eta igandean, Tuck de Mullers, etxerako bidea hasi aurretik. Federatuek 55 euro ordaindu behar dituzte, eta federatu gabeek 63. Bidaia kotxe bidez egingo dute, eta izena emateko info@oargi.org helbidera idatzi behar da.

Saltokietako barnealdea diseinatzen ikastaroa

EKONOMIA › Tolosaldea Garatzenek *Zure espazioa diseinatu* ikastaroa antolatu du azaroaren 4tik 15era, astelehenetik ostiralera, 14:15etik 16:15era. Ikastaroa Ibarra Apata Industrialdean izango da, Leitzaran gelan, eta bertan parte hartzeko 60 euro ordaindu behar dira. Izena emateko epea irailaren 27an amaitzen da, 08:00etatik 15:00etarako ordutegiaren barruan. Horretarako, 943 65 45 01 telefono zenbakira deitu behar da, edo posta elektronikoko bat bidali aduriz@tolosaldea.net helbide elektronikora.

Jaien balantzea eta Kultur Astea antolatzen bilerak

AMEZKETA › Herriko jaietako balantzea egiteko eta Kultur Astea antolatzen bilerak egingo dute Amezketa, hilaren 24ean, asteartean. Batzarra 20:30ean hasiko da balio anitzeko gelan. Festa batzordeko kideek herri guztiak gonbidatu dituzte bertara.

San Migel Egunean antolatu dute Amezketa

AMEZKETA › San Migel Egunean bidaia antolatu dute Amezketa, 60 urtetik gorako herritarrentzat. Irailaren 29an egingo dute txangoa, eta izena emateko aukera hilaren 23an eta 24ean egingo da, 09:00etatik 14:00etara. Txartelaren prezioa 30 eurokoa da, eta irteera ordua, 08:30ean. Lehendabizi plazan, gero Ergonen eta beherrakoan Ugarten geldituko da autobusa. Bazkaria eta arratsalde pasa Leitzan egingo dute.

Aurrera Saiazkoen eta Intxurrekoen partidak

PILOTA › Gipuzkoako Txapelketako pilota partidak jokatu dituzte bihar eta etzi eskualdeko pilotariak. Intxurrekoek partidak ikaztegietan jokatu dituzte bihar, 19:00etatik aurrera. Aurrera Saiazkoek hainbat herritan jokatu dituzte euren lehiak. Eskualdekoei erreparatuta, Bidanien partidak 19:30ean hasiko dira, bihar. Tolosan ere egun eta ordu berean jokatu dira lehiak, baina baita larunbatean ere. Kasu honetan, partidak goizez izango dira, hau da, 11:00etatik aurrera.

Esperientzia Eskolan izena emateko aukera

TOLOSA › Beti Ikasten Elkartek aurten ere Esperientzia eskola jarriko du martxan. Izena emateko epea urriaren 15ean zabalduko dute, eta bertatik esan dutenez, 2013/14 urteko ikastaroan oraindik leku batzuk gelditzen dira. Interesatuek 943 65 01 36 telefono zenbakira deitu behar dute, eta izaskunegatik galdetu.

Joseba Otaegi Kantabrikora joango da, baina denbora eskatuko dio Alex Txikoni

Bost herri kirolez osatua egongo litzateke apustua, eta 2014ko otsaila-martxoan jokatu litzateke

Asier Imaz Zizurkil

Joseba Otaegi eta Alex Txikon Tolosako Kantabrikon elkartuko dira bihar, 20:00etatik aurrera. Txikonek zizurkildarrari apustu oso berezia bota zion iragan larunbatean, eta horren inguruan ariko dira hizketan Kantabrikon. Biharko hitzorduan, ordea, ez da akordiorik egongo, desafioz hitz egiten hasi aurretik Otaegik denbora eskatuko baitu. Zizurkildarra bizkarreko minarekin dabil, eta apustua onartu aurretik, desafio egunean egin beharko litzuzkeen hainbat kirol probatu nahi ditu, aurrera begira, ate guztiak zabalik utzi.

Joseba Otaegik apirilean jokatu zuen apustua Antonio Senosiainen aurka. Irabaztea lortu bazuen ere, bizkarreko minarekin amaitu zuen aizkora proba. Ondorengo hilabeteetan lesioak ez du hobera egin, eta mediku azterketak egin ondoren, atzo jaso zituen emaitzak zizurkildarrak: «Hernia diskala izango zela uste genuen, baina probek ez dute horrelakorik erakutsi. Hala eta guztiz ere, arazoa konpontzeko tratamenduarekin hasi beharra daukat». Otaegiren esanetan, uda guztia «arrastaka xamar» pasatu du: «Horregatik esan nuen apustua ez dela segurua. Hitz egi-

tera joango naiz ostiralean, baina hilabete inguruko epea eskatuko dut. Ez dut nahi aberia handitu, eta ongi erreuperatzen naizenean hitz egingo dugu».

Urriaren 12an Euskal Herriko aizkolari txapelketa hasiko da, eta Otaegik oraindik ez daki ziur bertan egingo den ala ez. Zizurkildarrak argi dauka bizkarra ongi jarri arte ez duela ezer egingo, eta ondoren etorriko direla etorri beharrekoak.

Lesioaren testuinguruan iritsi zitzaion apustuaren berri Otaegiri, eta «erabat ezustean» harrapatu zuela dio zizurkildarrak. Hala eta guztiz ere, desafio berezi horren ideia gustatu zaiola ezin ukatu.

Apustu berezia: pentatloia

Tradizioari heldu zion Alex Txikonek erronka luzatzerako garaian, eta ohitura zaharrak gogoran, Otaegiri ere gustatu zaito ideia: «Garai batean Tolosako zeren plazan egiten ziren horrelakoak. Pentatloian bost herri kirol proba egiten dira: harri jasotzea, harri tiratzea edo giza proba bakarra, txinga eroatea, aizkora eta korrika».

Datari dagokionez, Txikonek otsaila amaiera martxoa hasieran kokatu zuen apustua, Tolosa zeren plazan. Diru kontuez hitz egiterako garaian, 10.000 euroko zifra bota zuen mendizale eta herri kirolariak. Hori diru gehiegi dela uste du Otaegik, baina puntu honetan, eta hitz egin da, adostasun batera iristeko arazorik ez litzatekeela egongo uste du zizurkildarrak.

Proba berezia da herri kirol pentatloia, eta prestakuntza lana handia eskatzen du. Otaegi aizkolaria da, eta beste hainbat proba egin baldin baditu ere, harriare-



Uda guztia arrastaka xamar pasatu dut, bizkarreko lesio bat medio»

«Pentatloia: harri jasotzea, harri tiratzea, txinga eroatea, aizkora eta korrika»

«Apustua itxi aurretik ongi erreuperatu nahi dut, ondoren probatu eta hitz egiteko»

JOSEBA OTEAGI
Aizkolaria

kin ongi probatu nahi du bere burua nondik nora mugitzen den jakiteko, eta esan bezala, guztia apustua itxi aurretik.

Errebandxa usaina

Apustua gauzatzen bada, ez da Joseba Otaegiren eta Alex Txikonen arteko lehena izango. 2010eko martxoaren 1ean bi kirolariak aurrez aurre izan ziren Azepeitiko zeren plazan. Orduan, harri jasotzen, aizkora eta korrika neurtu zituzten indarrak, eta Otaegi izan zen irabazlea. Orain, berriro zeren plaza batean elkar daitezke Txikon eta Otaegi, errebandxa usaina duen apustu ikusgarri bat tarteko.

Aresoko Udala

ZOLBO USATIGAN ENAMTEA
BIRGANDU ETA USGA
ARESO (NABARRA)

TEL. 94533227-40002626
Dienetarik 24 orduz

Pasabetearen urteko kotiza
Eskualdeko Udaketa Sarean burutuko da
Lago erabiltzeko: irailaren 21ean, larunbata, 18:00
ordutik
I. irteerako: irailaren 28an, larunbata, 18:00
ordutik

Pilota eta txakolina uztartzen dituen jaia, etzi, Amasan

25 txakolindegik hartuko dute parte Uxo Toki elkarteak antolatzen duen Txakolin Egunean

Iñigo Terradillos Amasa-Villabona

Hirugarren urtez Txakolin Eguna ospatuko dute etzi, larunbatean, Amasan. Pilota jaialdi interesgarria eta txakolin dastaketa dira festaren osagai nagusiak, eta aurreko bi urteetako arrakasta izatea espero dute Uxo Toki elkarte-koek.

Pilota jaialdiarekin hasiko da festa, 16:00etan. Hala, pilotarekin batera, desafioa eta bertsoa uztartuko dituzte. «Zerbait berria sartzen saiatzea da gure helburua, beti ere Amasa inguruko pilotari gazteei aukera emanez, eta iaz Amasako gazteen arteko partida bizia izan bazen, aurreko pilotarekin batera beste bi euskal ezaugarri nahastu nahi izan ditugu», azaldu dute Uxo Toki elkartetik. Lehen partidan pilota eta desafio elkartzeko dituzte, eta Eskudero andoaindarrak Otaño amasarren eta Ormazabal billabonatarren aurka egingo du.

Ondorengo partidan bertsoarekin nahastuko dute pilota, binakako partidan, kasu honetan. Oihana Iguaran amasarra eta Amaia Agirre billabonatarra ariko dira bertsoan eta Lizaso zizurkildarra eta Aranburu oiartzuarra Urmeneta aňogatarra eta Urruzola asteasuarraren aurka pilotan.

Ondoren iritsiko da profesionalen txanda. Aurreko urteetan bezala, aurreko bi urteetan partidak ikusmin handia piztea espero dute. Mikel Goñik eta Eulatek Eugi eta Otxandorenaren aurka jokatu dute.

25 txakolindegik

Pilota jaialdiak bi orduko iraupena izango duela aurreikusiko dute antolatzaileek. Jaialdia amaitzen denean, festa Amasako pilotalekuk plazara pasako da, txakolin dastaketari hasiera emateko. Aurten 25 txakolindegik izango dira. Hain zuzen ere, txakolindegiek festa honetan izan duten erantzuna nabarmendu nahi izan dute: «Harremanetan jarri garen ia upategi guztien oniritzia jaso dugu, eta horrelako ekimenak kostaldetik kanpo antolatzea txalotu dute». Hala, lehenengo Txakolin Festan 11 txakolindegik par-



Uxo Toki elkarteak kideak, herenegun, Txakolin Egunearen aurkezpena. I.T.

te hartu bazuten, eta iazkoan 22k, aurten hiru gehiago izango dira. «Getariako Txakolina izendapena duten ia guztiek parte hartuko dute, bost bakarrik faltako dira osotasunera iristeko».

Gipuzkoako txakolindegia dira guztiak, kostaldekoak, nahiz barrualdekoak, denak Hondarribi zuri mahatsarekin egindako txakolinak. 2012ko uztia izango da dastagai, «fruta gustukoa, intentsitate handikoa, eta ahoan iraunkortasun luzea duena».

Musika eta jatekoa

Bestalde, pilota partidak eta txakolin dastaketa alaitzeko, dultzainero eta trikitilarien musika izango da arratsalde osoan, dantza egiteko aukera izango da, eta bertsolarien saioak izango dira. Era

berean, txakolinarekin batera jatekoa ere emango dute larunbatean Amasan. Sardinak, txorixoa, patata tortilla edota gazta izango dira guztien eskura. Aforlortuan, berriz, festarekin jarraitu nahi duenak Uxo Toki elkartearen eginiko duten afarian parte hartzeko aukera izango du. Horretarako nahikoa izango du antolatzaileekin hitz egitea.

Festan parte hartzeko sarreraren salmenta Amasako Iturri-Goxon, Villabonako Iru Aldeta, Xiker, Itzalpe, Obaba, Iratzar, Or konpon, Urrizpe, Amasa kafetegia, Larrea okindegian, Zizurkilgo Egari eta Iriarten eta Asteasu Iturriondoko tabernan jarri dute. 12 eurotan eskura daitezke txartelak helduentzat eta 6 eurotan haurrentzat. Helduen txartelare-

kin, pilota partidak, txakolina dastatzeko edalontzia eta bi pintxo jateko aukera sartzen da eta haurrekin, pilota partida eta pintxoak jateko aukera. Amasan egongo dira eta txakolinetara bakarrik joan nahi duenak ere edalontzia eta pintxoak bakarrik hartzeko txartela erosteko aukera izango du. Txartel horiek 5 eurokoak izango dira.

Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte festa honetan parte hartzera, «giro aparta» izango dela ziurtatuz. Era berean, Txakolin Eguna antolatzen lagundu duten guztiak eskertu dituzte, hala nola, «Amasako gazteak, Amasa-Villabonako Udala, Iturri Goxo taberna, pilotariak, musikariak eta txakolindegia».

↓ Txakolin Eguna

EGITARAUA

■ **16:00.** Pilota partidak: Eskudero (Andoain) Otaño (Amasa) eta Ormazabal (Villabona) aurka. Ondoren, Oihana Iguaran eta Amaia Agirre bertsoan, eta Lizaso (Zizurkil) eta Aranburu (Oiartzun) Urmeneta (Añorga) eta Urruzolaren (Asteasu) aurka pilotan. Ondoren, profesionalak: Mikel Goñik eta

Eulatek Eugi eta Otxandorenaren aurka jokatu dute.

■ **18:00.** Txakolin dastaketa hasiko da pilota partidak amaitzearekin batera.

TXARTELAK

■ **Prezioa.** Helduentzako 12 euro (pilota partidak, txakolina dastatzeko edalontzia eta bi pintxo), eta gazteentzat 6

euro (pilota partidak eta bi pintxo).

■ **Salmenta.** Amasan: Iturri-Goxo; Villabona: Iru Aldeta, Xiker, Itzalpe, Obaba, Iratzar, Or konpon, Urrizpe, Amasa kafetegia eta Larrea okindegia; Zizurkil: Egari eta Iriarte; Asteasu: Iturriondo. Amasan ere txartelak erosi ahaliko dira. Txakolina solik edo pintxoak ere eskuratu ahaliko dira, 5 euroan.

Egin HITZAREN HARPIDEDUN
irailaren 1etik urriaren 31ra arte, ETA JASO:

OLASAGASTI kontserba produktu sorta
www.conservasolasagasti.com

Harpidedun egiten diren guztien artean **SEGORE ETXEBERRI nekazal turismoan, bi lagunentzako** asteburu baterako egonaldia* **ZOZKATUKO DUGU**
*Ostiral gauetik, Iganeko goizera PENTSIU OSOAN.

Harremanetarako: 902 82 02 01 harpidetza@hitza.info **hitza**

Hirurogeitahirukoak

Laskoran ikastolaren lehen urteetako protagonisten ahotik, ordubetz sortze, irakasle, guraso, langile eta ikasleek bizi izandako gorabehera eta anekdotak.

Tolosan irailak 19, osteguna Topic-en (EH plazan) 20:00etan. Barrerak 3 euro salgai KMK dandan eta ikastolako idazkaritzan.

lagunak izanek eta **AKORA!**

Zerkausia, Uzturre nahiz Atauts eskultura, argazkilarien objektiboek sarri harrapatzen dituzten irudiak dira. Aranburu jauregian, ordea, Tolosako txoko ezkutuen bila joan direnen lanak ikusgai daude, egutegirako lehiari.

Herriko txoko kuttunenaren bila

Itzea Urkizu

Norbere herrian, arrazoi batengatik edo besteagatik, izaten da beti, txoko, kale kantoi, auzo, plaza edo paisaje kuttunik. 2014ko Tolosako Udalaren egutegia apaintzeko argazkiak, herritarren leku ezkutuhoriez betetzea proposatu zuten iaz, udalak eta Tolosa Gasak. Aranburu jauregian ikusgai dira jada, argazki lehiaketako azken zatira iritsi diren 40 lanak; hilaren 28ra arte zabalik izango da erakusketak, asteartetik larunbatera bitartek, 17:30etik 20:30era.

Alberto Gonzalez antolatzaileak, «gaiaren arabera parte hartzea aldatu» egiten dela dio, baina argi dago egutegiari loturiko argazki lehiaketak gero eta harrera hobea duela tolosarren artean. Horren erakusle dira aurten aurkezturiko 530 argazkiak; 45 argazkilarik parte hartu dute.

Iazko *Argiak eta itzalak* gaiari heldu eta lehiaketa irabazi zuen Asier Garagarzak epaimahaikide izateko aukera izan du aurten, eta besteak beste, argazkilariak irudia erretiratzerakoan saiakera edo ahalegin berezi bat egitea oso kontuan izaten duela nabarmendu du.

Jarritako gaiari ondo heltzeak ere badu garrantziarik, ordea. Horrela, *Tolosako txoko ezkutuen* gaiaren harira, epaimahaia hautaturiko 40 irudirik onenak zintzilikatu dituzte Aranburu jauregi horietan. Erakusketako bisitari askok lehen aldiz ikusiko dituzte zenbait irudi, eta betiko postal horietatik harago ere, Tolosan xarma berezia duen beste txokorik ere badela ikusi ahal izango dute.

Urteroko moduan, berriz, herritarrek beren argazkirik gustokoena bozkatzeko aukera izango dute, eta argazki kamera digital baten zozketan sartuko dira.

Josu Otaegiren omenez

Aranburuko beheko solairura eskilarak jaitsi, eta bisitariak Alde Zaharreko San Fermin txiki eguneko argazki bat ikusi ahal izango dute.

Zendu berria den Josu Otaegik ateratako azken argazkietako bat da, aurtengo San Fermin eguneko, eta hura omentzeko bide xumea izan da: «Urte asko zeramatzan argazkilari gisa lanean, eta Tolosan jende guztiak ezagutzen zuen. Omenaldi txiki hau egitea pentsatu dugu», azaldu du Alberto Gonzalezek.

● tolosa@hitza.info



Kalean ateratako hainbat argazki aurkeztu dituzte, baina naturako elementuek ere protagonismo handia dute erakusketan. HITZA



Mauka
berria

GAURKO ESKAINTZA

Aurpegiko eguzki tratamendua (30 min)

EGUZKILORE OSASUN SPA
 Erregezainen kalea, 4
 DONOSTIA 20008 • GIPUZKOA
 Tel.: 943-57 58 25
eguzkiloreosasan@yahoo.es / www.eguzkiloreosasan.weebly.com



Prezioa

9€

www.mauka.eu

berria
taldea

#TolosaldeaTxanpions → Eskualdeko Realzaleak (I)



Ilusio handia piztu du Txapeldunen Ligak realzaleen artean, eta hori aprobetxatuz eskualdeko realzaleei euren bizipenak kontatzeko aukera eskainiko die Tolosaldeko HITZAK.

Tolosaldeko izarrak ikustera

Mikel Iraola

Txapeldunen Ligarako itzulerak ilusio handia piztu du realzaleengan. Tolosaldeko txuri-urdiak beti izan dira leial. Han eta hemen, bigarren mailan eta lehenengoan, beti izan dira zaleak taldeari animoak ematen, ilusio berarekin beti. *Txanpionsa*, ordea, *txanpionsa* da. Ez da nolana hikoia. Horregatik, zaletuen artean giro berezia sortu da eskualdean.

Bi igandez behin gertatzen den moduan, eskualdeko herrietako realzaleek hainbat autobus bete zituzten Anoeta estadiora joateko. Ilusioa nabaria zen, eta taldearen konfiantza osoa zuten guztiek. Realak irabazi egingo zuela koan zeuden zaletuak.

Anoetara joan ezin zutenek ere bilatu zuten euren txokoa partida jarraitzeko: elkarteak, tabernak, lokalak, etxeko sofak... Iurre Elkartearen kasua da. Lyonen aurkako partidaren gertatu bezala, jendez bete zen.

Gaua ez zen izan nahi bezala-

koa, Realak 0-2 galdu baitzuen Xakhtar Donetsk-en aurka.

Bizipenak partekatu

Baina, galduta ere, gutxienez, bost partida geratzen zaizkio oraindik Realari Txapeldunen Ligan, eta ilusioa bere horretan mantentzen da. Hori dela eta, realzale guztien ilusioa partekatu nahi du Tolosaldeko HITZAK.

Horretarako, zaleak protagonista bihurtu nahi ditu, eta aho-tsa eman nahi die. Beraz, eskualdeko realzaleek Txapeldunen Ligako datozen norgehiagoketetan, Anoetan, nahiz Manchester, Leverkusen edo Donetsk-en dituzten bizipen eta inpresioak kontatzeko aukera izango dute bideo, argazki edo testu bitartez. Hiru modutara egin ahal da: Facebook bidez, Twitter bidez (@tolosaldeataria edo #TolosaldeaTxanpions) hashtag-a erabiliz edo iolosaldean@hitza.info helbidera bidaliz. Hau lehen kapitulua izan da, eta gutxienez, beste bost geratzen dira.



Eskualdeko herri askotatik autobusak betetzen dira Anoetara joateko. HITZA



Iurre Elkartearen jendez bete zen partida ikusteko. HITZA



Tolosar hauek bi astez behin joaten dira Anoetara; asteartean ere bai. HITZA



Iosu Iturriotz eta Beñat Hierro anoetarrak estadiotan. HITZA

↓ Iritzia

«Irabazi ala galdu, sari bat da»

Asteartean hamar urte bete ziren azkeneko Realak Txapeldunen Ligako ibilbidea hasi zuenetik. Ez gehiago, ez gutxiago. Hain zuzen, 2003ko irailaren 17 hartan, Anoetan Olympiakos taldearen aurka aritu ziren txuri-urdinak. Gainera, irabazirik ezin zioten txapelketari, Kovacevic-en gol bati esker.

Arratsalde hartan, ilusio biziz joan nintzen Anoetara, kontent. Iurreko bideo klubean gozoki eta pipak erosi, autobusa hartu, nire taldea irabazten ikusi, eta buelta, are kontent uago. Ororen gainetik, gozatu egin nuen gau hartan, ez baita noiznahi ikus daitekeen gauza bat.

Asteartekoan, ilusio berarekin abiatu nintzen Anoetara. Pozik. Patata tortilla ogitarteko goxoa prestatu, autobusa hartu, Realak galtzen ikusi, eta buelta. Eta bai, itzulera ere nahiko kontent egin nuen. Izan ere galtzen bada ere, Realak berriro ere handien artean ikusteko aukera izan nuen, noiznahi ikus ezin daitekeena.

Aurreko egunean, hain zuzen, *The Wire* telesaila ikusten ari nintzela, *You cannot lose if you do not play* esanak atentzioa eman zidan: Ezin da galdu jokatzeko ez bada. Realak ere ez luke galduko partida hori Txapeldunen Ligarako sailkatuko ez balitz. Eta hamar urtetan Realarekin gertatu dena edo futbol taldeen arteko ezberdintasun ekonomikoak ikusita, nire galdera da ez ote den nahiko poztasun, bertan jokatu ahal izatea. Irabazi ala galdu, sari bat da.

■ **Mikel Iraola.** Tolosa.

berria bekak 2013

Norentzat:

- Unibertitate titulua duten gazte esperientzia gabekoentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Zuzenketa-itzulpengintza
arloan

beka bat

EZAUGARRIAK:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik uztaileira
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2013-09-25 • Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean eskura daitezke

NIKETA EZAZU,
BEZI ERABILTZU
berria



ILGE eta bertan dauden kolektiboetako kideak Bizipozaren Jaieren aurkezpenean. IRRIEN LAGUNAK

Irrien Lagunak Gizartegintza Elkartek (ILGE) antolatuta, Bizipozaren Jaia ospatuko dute igandean Lazkaon. Elkarteko 22 kolektiboek laguntzeko festa da, eta tartean da Ibarako Afesta.

Bizipozaren bila, auzolanean

Mikel Iraola Ibarra

Igande honetan, Bizipozaren Jaia ospatuko da Lazkaon. Irrien Lagunak Gizartegintza Elkartek (ILGE) antolatutako festak, bertako kide diren 22 kolektiboek laguntza ematea du helburu du.

ILGE Elkartasun Elkartearen gogoeta estrategiko batetik sortu zen, duela bi urte. Behar bereziko haurren eta hauen familien bizibaldintzak hobetzeko lan egiten duten kolektiboek proiektu egonkor bat egin, euren behar afektibo eta materialei aurre egin, eta euren errealitateak gizarteratzen laguntzen du. Euskal Gorrak, Etiopia Utopia, Banaiz Bagara, Pausoka, Saharako Lagunak, Gehitu, Ademgi, eta beste hainbat kolektibok osatzen dute.

Horien artean da Afesta. Ibarrran sortutako elkarte honek Tourette sindromea duten euskal haurren familiak batzen ditu duela bi urtetik hona. «Tik edo kei-

nuak egitean datzan gaixotasun arraroa da Tourette sindromea. Batzuk sinpleak dira, baina badira konplexuak direnak, hala nola, oihiu egin, hitzak errepikatu edo saltoak egitearenak», azaldu du Eli Agirretxe, elkarte kideak.

Hiru familiek eratu zuten, eta gaur egun, hamaika dira. «Elkarrri laguntzen diogu, esperientziak konpartituz eta terapia psikologikoak eginez», dio Agirretxek. Horrez gain, gaixoei ere integratuta egoteko laguntzen diete, terapia psikomotrikoak eginez. «Gizarte iritasun honen berri ematea da gure beste helburuetako bat».

Hori guztia egin ahal izateko, ezinbestekoa zaio Irrien Lagunak Gizartegintza Elkartek ematen dion laguntza. «Pailazoei laguntza eskatu genien, horrelako gaitzetan sozialki oso konprometituta daudelako. Erantzuna berehalakoa izan zen, eta elkartean sartzeari eskaini ziguten». Harrezkero, «beti laguntzeko prest» izan

direla aitortu du Agirretxek: «Oraindik ez daukagu erakunde publikoen diru-laguntzarik, eta ILGEk emandako laguntzari esker psikologoekin egiten ditugun terapiak ordaintzea posible da».

Erronka berriak

Afestarena ILGE osatzen duten 22 elkarten kasu bat besterik ez da. Orain arte, elkarte hauei indar mediatikoa eskainiaz errealitatea gizarteratzen saiatu dira euskartik eta euskaraz. Hori dela eta, *Irria* aldizkarian presentzia izan dute; webgunean ere euren txokoa izan dute; eta abesti, jaialdi, ikuskizun, egutegi edo bestelako ekitaldi eta elkarlanak sustatu dituzte elkarrekin.

Aurten, erronka berriak proposatu ditu ILGEk. Esaterako, ospitale, ikastetxe eta bestelako ekitaldietara joateko prest leudekeen boluntario taldea osatu nahi du, pertsonaia ezagun eta anonimoekin. Bestalde, gizarte arlo ezberdinetako adituez osatutako

kontseilu bat eratu nahi dute, ILGEren jarraipena egiteko.

Igandean, festa mundiala

Badu beste erronka bat ILGEk. Izan ere, Irrien Lagunak Klubaren egunaren ordez, urtero irailko hirugarren astean, Bizipozaren Jaia ospatzeko asmoa du. Igandean, *Jantzi Zapia!* lelopean, lehen aldiz ospatuko da Lazkaon, eta egun horretako etekinak ILGE proiektura eta jaia antolatzen laguntzen duten herriko eragileen artean banatuko dira.

Ekitaldi askoz osatutako egitaraua izango da bertan, eta jaialdirako sarrera apropos egindako zapi pirata bat izango da. Zapiaren salneurria bost eurokoa izango da norbanakoentzat, eta hamar eurokoa familia osoarentzat. Irrien Lagunak Klubeko txarteldunek, doan izango dute sarrera.

Horrez gain, elkarte bakoitzak bere jarduerari eta inguratzen dieten arazoei buruzko informazio mahaia jarriko ditu.

↓ Egitaraua

EGUNEAN ZEHAR

- Puzgarriak eta tailerrak, Txatxilipurdi aisialdi taldearen eskutik.
- Lazkaoko Jun da jo txaranga.
- Asto ibilaldiak Giasel elkartearen eskutik.
- ILGEko 22 elkarten mahai informatiboak.
- Lazkaoko talogileak.
- Kirol gunea, eta Beasaingo gaztetxeko malabare taldea.
- Euskarazko esamoldeekin osatutako panelak.

OHOLTZA NAGUSIAN

- **10:00.** Antzar Gazteak taldeko txistularien emanaldia.
- **10:15.** Lazkao, Beasain eta Altsasuko dantza taldeen ibilaldiaren irteera.
- **10:30.** *Irri Herri* antzitea saioa.
- **11:30.** Dantza taldeen emanaldiak herriko plazan.
- **12:00.** Lazkaoko abesbatzak.
- **12:30.** *Sentitu, pentsatu, ekin* emanaldia Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin.
- **15:00.** Iztueta baserrira bisita Largabista eta Lazkao Txiki musika eskolarekin batera.
- **15:00.** *Txantxariak* jolas dinamizazioa Urxintxa eskolarekin.
- **16:00.** Irrien Lagunak Klubeko sari banaketa.
- **17:00.** *Ane eta Piratekin parrandan* dantzaldia.
- **Amaitzeko.** Txokolata Iztueta baserrira eta Tolosako Gorrotxategiren eskutik.

ELKARTEEN TXOKOAN

- Juan Gorriti artistaren eskutik horma-irudiaren margoketa.
- Kirol egokituak, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioarekin.
- Kajoi tailerra, Kale dor Kayiko elkartearen eskutik.
- Gida-txakurren erakustaldia, Bocalan-Biak Bat elkartearekin.
- Zeinu tailerra, Euskal Gorrak elkartearen eskutik.
- Hena tailerra, Goierriko Sahararen aldeko Lagunekin.
- Ipuin kontalaria, Gizakien Lurra elkartearen eskutik.
- Horma-irudi erraldoia Lazkaoko marrazketa tailerrarekin.

📍 Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info





15°
19°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	20°
HOTZENA	14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
Faxa: 943 65 00 18
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa.
Kudeatzailea: Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona-aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

XVII. Udako Argazki Lehiaketa



MAROKOKO BIDAIEK EMANDAKOA

Eneritz Urkolak Marokora egindako bidaian aterako argazkia bidali du: «Basamortuan ibili gara, Merzouga inguruan». Txoan Ormazabalek Fez, larru-ontzaileen auzoan ibili da: «Behi, dromedario, ardi edo ahuntzen larrua da piloetan ikusten dena. Lehenik kare eta urrezko askan sartzan dituzte, ilea kendu eta garbitzeko. Ondoren,

uso zirinez beterikoetan, biguntzeko. Segidan, tindua dutenetan, gero lehortzen uzteko. Han egon ginen ordu laurdenean nekez jasan genuen kirats harekin lan egiten dute eguna joan eta eguna etorri argazkiko larru-ontzaileek». Ane Urkolak Chefchaouen aterako argazkia bidali du: «Kolare urdina du herrixkak, oso polita». URKOLA/ORMAZABAL/URKOLA

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Amasa-Villabona.** Mugikortasun Astearen barruan, Bidegorri sare nagusiaren aurkezpena izango da Gaztelekuan, 19:30etik aurrera.

■ **Ikaztegieta.** Urriaren 5ean, Euskal Azoka eguna ospatuko dute, eta bazkaritarako txekor errea izango da. Txartelak salgai egon daude, Toki-Alai eta Ostatu tabernetan.

■ **Tolosa.** Mugikortasun Astearen barruan, 11:00etan, bizikletaz segurtasunarekin ibiltzeko tailerrak izango dira Trianguluan, ikastetxeetako haurrentzat. Eta 10:30ean eta 18:00etan, herriko errepideetatik bizikletaz ibiltzeko ikastaroak izango dira. Doakoa da, baina udaletxean izena eman beharko da.

■ **Tolosa.** Oargi mendi taldeak hilaren 20etik 22ra irteera antolatu du. Besiberri norte eta Tuc de Mulleres mendiak igoko dituzte. Bihar, Tolosatik abiatuko dira Conangles aterpetxera, eta bertan pasako dituzte bi gauak. Aterpetxea bi gauak, afari bat eta bi gosari, federatuek 55 euro ordaindu beharko dute, eta federatu ez direnek, 63 euro. Bidaia kotxez egingo dute. Izena emateko info@oargi.org helbide elektronikora idatzi behar da.

■ **Tolosa.** Aurten 40 urte betetzen dituztenen, hau da, 1973. urtean jaiotako bazkaria eta jaia egingo dute, urriaren 12an. Izena eman nahi dutenek ti973kobelaunaldia@hotmail.com helbide elektronikora idatzi beharko dute, edota facebook-eko *Berrogeiurte Tolosaldea Hirurogeitamairu* orrian. Izena emateko azken eguna, urriaren 5a izango da. Egitaraua: 12:00etan, Plaza Berrian pintxo pote kalejira. 13:00etan taldeko argazkia. 14:30ean, bazkaria Zerkausian. 16:00etan, musika eta 19:00etan, txarngarekin kalejira.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor zinemako zine forumean, 19:15ean eta 21:45ean, *The Trip* ikusteko aukera izango da jatorrizko bertsoian.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauetako. Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●● agurrak